

MAI TA SU NA

JULENE

20 urte

"Nik uste maitasun erromantikoari aurre egiteko behar duguna gure maitasun eredu propioa eraikitzea dela"

MAIALEN

18 urte

"Maitasun erromantikoaren kontzeptua ulertzen hasten zarenean; hasten zarenean pentsatzen, identifikatzen eta hori lantzen zure bizitzan... prozesu bat izan ohi da. Ez da egun batetik bestera gertatzen den zeozer"

MAREN

20 urte

"Bikote harremana eta nire lagunekiko harremana, askotan hausnartu eta pentsatu dut: zer da ezberdintzen dituen?"

MIKELSA

20 urte

"Maitasuna entzuten edo irakurtzen dudanean beti etortzen zait burura harremana. Eta uste dut hartu-eman horrek elikatu behar duela maitasun oro. Nik ematen dut, zuk emango didazu"




GERUZAK

Zer da MAITASUNA zuretzat?

MAITASUNAREN GAIAK ZER
GALDERA PIZTEN DIZKIZU?

Maitasuna
garrantzitsua al
da zuretzat?

HAUTATU ETA
ARRAZOTTU.



Pentsatzen
al duzu
maitasunaren
inguruan?

ASKOTAN

EZ

EZ DAKIT

BATZUETAN

BAI

INOIZ EZ

GUTXITAN

BETI

Hitz egiten al duzu zure
ingurukoekin maitasunaz?

NOREKIN?

NOIZ?

Zu
maitatua
al zara?

Zuk nor
maite
duzu?

Maite al
duzu zure
burua?

Elkar
maite al
gara?

Adierazten al diogu elkarri maite garena?

Zein izan da gaur egin duzun azken maitasun keinua?

Nola adierazten dizute zuri maite zaituztela? Eta zuk nola adierazten diezu maite dituzun horiei?

ADIERAZTEN DIDATE

ADIERAZTEN DIET

Eskainitako denbora

Hitzak

Trataera Jarrerak

Momentu onak partekatzea

Opariak

ENTZUNA IZATEA

Zuk zer baloratzen duzu gehiago?

EKINTZAK

Zutaz oroitzea

Momentu txarrak partekatzea

PUBLIKOKI ADIERAZTEA

Pribatuan adieraztea

Arreta eskaintzea

Zure bizitzan maitasun handiagoa egotea nahiko al zenuke?

Gure gizartean maitasuna osasuntsu al dago?

Maitasuna landare bat balitz nolako landarea litzateke zure ustez?

- HANDIA
- TXIKIA
- HAUSKORRA
- SENDOA
- IKUSGARRIA
- XUMEA

- BIZIRAU PEN LUZEKO A
- BIZIRAU PEN LABURREKO A
- ARANTZADUNA
- LOREDUNA
-

Non legoke?

- ZELAI BATEN ERDIAN
- ARROILA BATEN ERTZEAN
- BIDE BAZTERREAN
- DESERTUAN
- UBIDE BATEN ERDIAN
- BASOAN
-

Nola?

- BAKARRIK
- TALDEAN
- ZAINDUA
- MOZTUA
- BERE BAITARA HAZIA
- HAIZEAK OKERTUA
- TXISMITAK ZARTATUA
- FORMA EMANDAKOA
- BONSAIA
- AHAZTUA
- OHORATUA
- ZUHAIKAZ INGURATUA
- GAIXOTUA
- HILTZEAR
-
-

EGIN MARRAZKIA EDO ADIERAZI HITZEZ

Maitasuna hartu-eman al da? Maitasunean elkarrekikotasuna (elkar-maitasuna) ezinbestekoa al da?

Zuk dituzun maitasun harreman desberdinetan elkarrekikotasun hori betetzen al da? **GUZTIETAN?**

Ala batzuetan, nabarmen, eman baino **HARTU** (askoz) gehiago egiten duzu? Eta beste batzuetan hartu baino **EMAN** (askoz) gehiago?

Emango adibideren batzuk?

HARREMAN MOTA

HARTU+

EMAN+

OREKATUA

Zer sentiarazten dizu horrek?

Zerbait aldatzea komeni al da? Nahiko al zenuke?

Maitasun motak al daude? Ala maitasuna bat da?

Maitasunean kategoriak, hierarkiak al daude? Edo denak maila berekoak dira?

Zuretzat maitasun batzuk garrantzitsuagoak al dira beste batzuk baino?

Gure egungo gizarte ereduak bikote harremanen (bereziki heterosexuak) maitasuna goratzen al du beste maitasun batzuen gainetik?

Gure egungo gizarte ereduak familia nuklearraren maitasuna goratzen al du beste maitasun batzuen gainetik?

Maitasuna kontu pertsonal eta intimoa ote? Edota garai bakoitzean forma eta ulerkerak desberdinak hartzen dituen kontu soziala, kulturala eta politikoa?

Maitasuna, maitemintzea eta desira

MAITEMINTZEA
MAITASUNA AL
DA?

Erakarmena, desira,
maitemintzea,
maitasuna,
adiskidetasuna...

- BATETIK BESTERA PASA
GAITEZKE EDO EZ.
- LOTUTA DAUDE, BATA
BESTEAREKIN DATOR.
- GUZTIZ INDEPENDENTEAK
DIRA.

Maitasuna ibilbide edo prozesu bat
al da? Denboran zehar etengabeko
aldaketan dagoen, eta forma
desberdinak har ditzakeen zerbait?

Nortaz ez
zinateke inoiz
maiteminduko?

Aipatu hiru arrazoi
desberdinengatik inoiz
beraieztaz maiteminduko ez
zinatekeen 3 pertsona mota.

Nor ez litzaizuke
inoiz desiragarria,
erakargarria egingo?

Aipatu hiru arrazoi
desberdinengatik inoiz
erakargarri izango
ez zitzaizkizun 3
pertsona mota.

-
-
-

-
-
-

NOR ETA NOLA
MAITATZEN DUGUN...

NOR ETA NOLA
DESIRATZEN DUGUN...

NORTAZ ETA NOLA MAITEMINTZEN GAREN...

Desira normatiboak
deseraiki eta desira berriak
eraiki daitezke?

Maitasun
harreman
normatiboak
deseraiki eta
harreman
berriak eraiki
daitezke?

Adibidez,
norbaitez
bapatean,
itsu-itsuan,
irrazionalki
maitemintzearen
ideia hori
deseraiki dezakegu,
eta beste
harremantze mota
bati forma eman?


Guk erabakitzen dugu? Edota
bizi garen gizarte ereduarekin
eta gizarte eredu horretan
desiragarritzat eta maitegarritzat
jotzen denarekin badu zerikusia?



Zer da "maitasun erromantikoa"?
Bilatu eta irakurri Gizapedian
AMODIO ERROMANTIKOA edota Wikipedian
MAITASUN ERROMANTIKOA.

Zer iritzi duzu
maitasun
erromantikoaz?

Eredu-, harreman-, jokamolde-,
desira-erromantiko deiturikoek
zer pisu eta presentzia dutela
uste duzu zure bizitzan?
Hautatu.



Zure heziketako esparru desberdin
hauetan, bikote harreman
erromantikoaren ereduak garrantzia izan
al du? Zenbat? Markatu lerroan.

- ETXEAN
- HEZKUNTZAN
- KALEAN
- JANZKERAN
- OPARIETAN
- JOLASEAN
- ZALETASUNETAN
- -----

Zure eguneroko esparru desberdin
hauetan, bikote harreman
erromantikoaren ereduak
garrantzia al du?

- ETXEAN
- IKASKETETAN
- LANEAN
- GUSTUKO
KULTUR-ADIERAZPEN
DESBERDINETAN
- KOMUNIKABIDEETAN
- SARE SOZIALETAN
- AISIALDIAN
- LAGUN TALDEAN
- -----

Eta zure etorkizuneko asmo,
amets eta nahietan ba al du
garrantzirik?

ZERTAN?

BAI EZ

-
-
-
-
-

MAITASUNA, ADISKIDETASUNA eta ZAINTZA



Nik beti defendatu izan dut laguntasun harremana maitasun erromantikoaren ideiarekin gainera, iruditzen zaidalako espazio askoz ere handiagoa uzten duela maitasun desberdinetarako, mota desberdineko forma askoz ere gehiago hartu ahal ditzakeela, ez dagoela gure erromantizismoaren ideia bezain murriztua.

BAT AL ZATOZ?

Bikote harremana eta laguntasun harremana zerk desberdintzen ditu?

Badu adiskideen maitasunak bikotearenak ez duen zerbait? Eta alderantziz?

Zertan dira berdin eta zertan desberdin?

=	≠

ADISKIDETASUNA BETI DA MAITAKORRA?

ADISKIDETASUNEN MARKOAN ERE HARREMAN TOXIKOAK EXISTITZEN AL DIRA?

MAITASUNAREN IZENEAN, EREMU DESBERDINETAN, ZAPALKUNTZAK ONARTZEN AL DITUGU?

ETA ZER IRITZI DUZU FAMILIAKO MAITASUN HARREMANEN INGURUAN?

FAMILIAKO MAITASUNAK ERE BETI DIRA MAITAKORRAK?

Maitasuna eta zaintza
uztartuta al daude?
Elkarrekin izan behar
al dute?

Zuk zaintzen al dituzu maite
dituzunak? Nola? Zertan?

-
-
-
-

Maite zaituztenek zu zaintzen
al zaituzte? Nola? Zertan?

-
-
-
-

GEHIAGO ZAINDU
BEHARKO AL
ZENITUZKE?

GEHIAGO ZAINDU
BEHARKO AL
ZINTUZKETE?

Oro har elkar
zaintzen al dugu?
Behar beste?

ALA EZ BEHAR
BEZAIN BESTE?

Gordetzen al duzu
zure denboraren zati
bat zure ingurukoak
zaintzeko?

Zure
ingurukoak
entzuteko?

Haiekin
egoteko? ...

Ala horretarako
ere presaka bizi
gara?

Aipatu azken 24 orduetan,
maite duzun norbait edo
norbaitzuk zaintzeko
egin duzun zerbait.

BESTEekin
GAREN MODUAK
ZER DIO
GUTAZ?

MAITASUNA eta HETEROARAUA



Bilatu eta irakurri euskarazko Wikipedian **HETEROARAU** hitza edota Gizapedian **HETERONORMATIBITEA** hitza.


Zer iruditzen zaizu heteroaraua?

MAITASUN
ERROMANTIKOAREN
IDEIA ETA HETEROARAUA
/ HETERONORMATIBITEA
LOTUTA AL DAUDE?

Gure maitasunaren ulerkerak eredu patriarkalean al du oinarria?

Gizarteak esleitzen dizkizun rol horietan zure burua errekonozitzen al duzu? Ondo al zaude? Gustura bizi al zara?

Gure gizartean elikatzen den maitasunaren ulerkeran gizonezko eta emakumezkoen rolak ez dira berdinak. Maitasunak baldintzapen desberdinak ditu genero batentzat eta bestearentzat. Genero bakoitzarentzat zertan dira desberdin erlazio sexu-afektiboan eta maitasunarenean dagozkien rolak? Bilatu desberdintasunak!



Laranja erdiaren mitoa, printze urdinaren eta printzesaren mitoa... zer iruditzen zaizkizu?

Mito horiek esanahi eta garrantzia bera al dute gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat?

ETA HETEROARAVAN,
GENERO EZ-BINARIOAK
BA AL DU LEKURIK?

Heteroarauak bikote harreman heterosexualak bizitzako helburu ezinbesteko eta goren bihurtzen al dizkigu?

Zuk ere bikote harreman heterosexual bat izatearen presioa sentitu al duzu edo sentitzen al duzu?

Bizitzako helburu garrantzitsuenetakotzat al duzu bikotekide bat izatea? Eta familia bat osatzea?

Bikotekiderik ez duen pertsona bati bizitzan zerbait falta zaiola uste al duzu?

Bikotekide bat topatu, ezkondu, umeak izan, ... ahal dela, etxe dotore batean bizi... gure bizitzan ardatzak al dira? Mitifikatuta al ditugu?

Umerik ez duen emakume bati bizitzan zerbait falta zaiola uste al duzu?

Errealitatetik urrun dauden bikote harreman idealizatuekin fantaseatzen al dugu? Gure desira eta ahalegin behinenak horretara bideratzen al ditugu?

24 orduko zure egunerokoan zertan eragiten dizu heteroarauak? Eta heteroaurik ez balego zer aldatuko zen?

HETEROARAUAK	HETEROAURIK EZ

Heteroarauak zure gorputzari forma eman al dio? Zure gorputza desberdina ote zitekeen beste gizarte eredu batean?

Eta zure ametsak? Eta zure amesgaiztoak?

Eta zure harrotasunak? Eta zure lotsak?



Erromantizismoa baino lehen, Europan behintzat, maitasunak ez zituen ezkontzak erabakitzen, edo bikote-kideak erabakitzen. Komunitateak erabakitzen zituen, gurasoen interesak, ... Eta maitasuna inork ez zuen lotzen ezkontzarekin.

Hortaz, maitasun erromantikoaren hegemonia sorkari historiko kulturala da. Zer pentsarazten dizu horrek?

Maitasunaren beste ulerkera zabalagoa, aberatsagoa, berdinzaleagoa behar dugula uste al duzu?

Saiatzen al zara/zarete zure bizitzan eta zure ingurukoenean maitasunaren ulerkera anitzagoa eta askeagoa praktikan jartzen? Maitasun erromantikoa kolokan jartzen, alegia?

ERRAZA AL DA?

NAHIKO ZENUKE PROBA EGIN?

Kapitalismoak maitasunaren gorazarrea erabiltzen al du kapitalismoa elikatzen jarraitzeko? Kotxeak, etxeak, arropak, lurrinak, opariak, bidaiak, janariak, prestamoak, hipotekak... guztia maitasunaren izenean?

Heteroaraua kapitalismoan bakarrik al dago ala beste erregimen politiko eta ekonomiko batzuk ere heteroarau indartzen dute?

Gogora ekarri publizitate adibide batzuk eta aztertu gaia!

Bizi dugun maitasun eredu hegemonikoak, bikote harremanean eta familia nuklearrean zentratuak, komunitatea sortzea eta indartzea, elkar batzea, antolatzea... ahuldu egiten al ditu?

Izan al liteke maitasunaren ulerkera jakin horren omnipresentzia eta propaganda aldaketa eta eraldaketa sozialak indargabetzeko bitarteko bat?

Zer MAITASUN eredu?

Maitasunarekin zerikusirik ez duten jokaera batzuk maitasunarekin nahasten al ditugu, edo maitasunaren izenean onartu?

Gertatu al
zaizu inoiz?

BAI

EZ

NOIZBAIT

USTE DUT EZETZ

USTE DUT BAIETZ

EZ DAKIT

GUTXITAN

ASKOTAN

HITZ HAUETATIK
ZEIN LOTZEN DITUZU
MAITASUNAREKIN?
ZEIN EZ?

POSESIOA

BIOLENTZIA

GORROTOA

EGUNEROKO PRAKTIKA

ARDURA

KONPROMISOA

MONOGAMIA

DEPENDENTZIA

BABESA

ELKARBANATZEA

ESKLUSIBITATEA

INBIDIA

HARREMANA

JELOSKORTASUNA

EZAGUTZA

MINA

ELKARREKIKOTASUNA

KONTROLA

DEBOZIOA

KONFIANTZA

BARKAMENA

BERDINTASUNA

ERANTZUNKIZUNA

ASKATZAILEA

ZINTZOTASUNA

SUFIMENDUA

ESANEKOA IZATEA

ERRESPETUA

KOMUNIKAZIOA

BESTERATZEA

EMANTZIPATZAILEA

NORBERA IZATEA

ESPLOTAZIOA

BEGIRUNEA

BOTEREA

PAZIENTZIA

LOTURA

DOMINAZIOA

SENTIMENDUA

MEHATXUA

KONFIANTZA EZA

ONARPENA

ULERMENA

ABUSUA

ZAINTZA

TRATU TXARRA

Zure bizitzan zehar jaso dituzun maitasunaren inguruko zein balio nahiko zenituzke etorkizunerako gorde eta zein erauzi?

o GORDE...

o ERAUZI...

.....

.....

.....

.....

Beste maitasun modurik ezagutzen al duzu lagun, familia edota bikotetik kanpo?

ZEINTZUK?

Hauek maitatu al daitezke?

MAITASUNA
MUGIMENDU SOZIAL
IRAULTZAILEA IZAN
LITEKE?


Gizarte eredu berdinzaleagoa, anitzagoa, askeagoa, justuagoa eta bizigarriagoa ekar lezake maitasunak?

Izan daiteke esperantzarako leku bat?
Borrokarako leku bat?
Sortzeko leku bat?

Maitasunak nolakoa izan beharko luke?

ASMATU EMOTIKONO BERRI BAT MAITASUNAREN TZAT. MARRAZTU.

DATZI HORMA HONETAN ZURE MAITASUNAREN LEMA!



Beste izaki bizidun batzuk Leku bat

Paisaia bat

HERRIALDE BAT

Artista bat

Animalia mota bat

Jainko bat

NATURA

HIZKUNTZA BAT

Zientzia

Askatasuna

Jakintza

Proiektu kultural bat

JANARIA

Lagun hurkoa

KULTUR ESTILO BAT

Etxabere bat

Komunitatea

Norbere burua

IDOLO BAT

HERRIA

kultura bat

Ingurugiroa

Zuhaitz bat

Idea politiko bat

Zaletasun bat

Zuk maite duzu horietakoren bat?

Zer dute beste maitasun batzuekiko desberdin?

Beste maitasunak bezain indartsuak izan al daitezke? Beste maitasunak bezain garrantzitsuak?